XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

5687

6/2021 LEGEA, urriaren 28koa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak 6/2021 Legea, urriaren 28koa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzekoa onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Gizarteak gardentasun handiagoa eskatzen duenez jarduera publikoan eta komeni denez Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araubide juridikoaren zenbait alderdi aldatzea, beharrezkoa da independentziaren eta inpartzialtasun objektiboaren printzipioak bermatzeko neurriak sustatzea euskal sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren kontrol- eta fiskalizazio-organoak indartu ahal izateko. Lege honen helburu nagusia lortze aldera, baldintza berriak ezartzen dira Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izateko, eta Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkuraren hiru bostenen aldeko botoa eskatzen da. Ildo beretik, abstentzio, errekusazio eta bateraezintasunen kasuak ere aldatzen dira.

Halaber, emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasunaren aldeko apustuak parekotasun hori indartuko duten neurriak sartzea eskatzen du. Horretarako, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak emakumeen eta gizonen artean modu orekatuan izendatzeko beharra sartzen da.

Lehen artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/988 Legearen 4. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

> «1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere funtzioak beteko ditu independentziaz, autonomiaz Eusko Legebiltzarrak onartutako aurrekontuaren betearazpenari dagokionez eta ordenamendu juridikoarekiko erabateko menpekotasunez.
>
> 2.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren aurrekontuaren betearazpenaren azterketa kanpo-auditoria batek egingo du, edo beste autonomia-erkidego bateko kanpo-kontroleko organoren batek (KKO), eta horretarako, erakunde publiko horiekin dagozkion hitzarmenak sinatu beharko ditu. Fiskalizazio hori Eusko Legebiltzarrari helaraziko zaio lege honen 13.3 artikuluan aipatzen den urteko txostenaren eranskin gisa».

Bigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 8. artikuluari 3. zenbakia gehitzen zaio, ondoko testua izango duena:

> «3.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiak herritarren eskura jarriko du Gardentasun Atarian, modu zentralizatuan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako publizitate aktiboaren betebeharrari lotutako informazio guztia eta, betiere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako behin betiko fiskalizazio-txostenak, bere urteko lan-programa, urteko memoriak eta Eusko Legebiltzarrak onartutako urteko aurrekontua».

Hirugarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 15. artikulua aldatzen da, eta honela geratuko da:

> «1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak goi-mailako titulu akademikoa dutenen artean aukeratuko dira, besteak beste, Zuzenbidean, Ekonomia Zientzietan edo Enpresa Zientzietan lizentziadun edo graduatuen, edo goi-mailako titulu baliokideak dituztenen artean,

baldin eta gaitasun aitortua eta bermatua badute Epaitegiaren eremu funtzionalean eta, betiere, gutxienez hamabi urteko esperientzia profesionala badute.

2.– Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak hautatuko ditu Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak eta haren hiru bostenen aldeko botoa beharko da. Hautagaien aurkezpenean gizon eta emakumeen presentzia orekatua zaindu beharko da.

3.– Hautaketa efektiboa izango da hautatua bere karguaz jabetzen den egunetik hasita, dagokion izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian behin argitaratu ondoren».

Laugarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 16. artikuluaren 4. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratuko da:

«4.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideek epaileentzat jarrita dauden ezgaitasun-arrazoi, bateraezintasun eta debeku berberak izango dituzte. Betiere, bateraezina izango da ondorengo egoerekin:

a) Eusko legebiltzarkidea izatea.

b) Diputatuen Kongresuko diputatua izatea.

c) Senataria izatea.

d) Kontuen Auzitegiko kidea edo sektore publikoko kanpo-kontroleko beste edozein organotako kidea izatea.

e) Alderdi politikoetan, zentral sindikaletan edo enpresa-elkarteetan zuzendaritza-funtzioak edo funtzio exekutiboak betetzen dituen kidea izatea.

f) Estatuko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo lege honen 2.1.a artikuluan aipatzen diren erakundeekin parekagarriak diren erakundeetako edozein kargu politiko edo administratibo betetzea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko edo lege honen 2.1.a artikuluan aipatzen diren erakundeetako edozein kargu politiko edo administratibo betetzea.

h) Bere lanbidean edo beste edozein jarduera liberalean, merkataritzakoan edo laboralean aritzea, ordaindua izan edo ez, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoetan izan ezik, betiere artikulu horretan ezarritako baldintzak betetzen badira.

i) Herri-hautapeneko beste edozein ordezkaritza-manamendu izatea, aurreko ataletan jasota ez dagoena.

j) Izendapen askeko edozein kargu politiko betetzea.

k) Herri Kontuen Euskal Epaitegian kontu-emaile den elkarte edo fundazio batean zuzendaritza-funtzioak betetzea.

l) Edozein administrazio publikotan zerbitzu aktiboan egotea.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideek, jardunean dauden bitartean, ezin izango dute beste kargu publikorik bete. Halaber debekatuko zaie alderdi politiko edo sindikatu baten ordezkaritzan jardutea.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideek utzi egin beharko dute eragin diezaiekeen bateraezintasun-egoera oro izendapena egin eta hamar eguneko epean eta karguaz jabetu baino lehen. Idatziz egingo da ukoa eta Legebiltzarreko Mahaiari zuzenduko zaio, lehendakariaren bidez. Hala egiten ez badute, ulertuko da izendapenari egiten diotela uko».

Bosgarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 16. artikuluaren 6. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratuko da:

«6.– Epaitegiko kideen agintaldia sei urtekoa izango da gehienez, hautaketa gauzatzen denetik zenbatzen hasita, eta kideak beste agintaldi baterako baino ezingo dira berriz hautatu. Hautaketa egiten bada plaza hutsak betetzeko, horrela hautatua izan den kidearen agintaldia aurrekoarentzat aurreikusitako agintaldiaren iraupenera mugatuko da».

Seigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 16. artikuluari 7. apartatu berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«7.– Osoko Bilkuraren eztabaidak isilpekoak dira. Eztabaidetan dauden pertsonek, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegian dituzten funtzioen ondorioz eztabaida horien berri dutenek ere, isilpean gorde beharko dituzte eztabaidok, orobat datuen babeserako araudia errespetatuz».

Zazpigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legeari 16 bis artikulu berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«16 bis artikulua.– Abstentzioa.

1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideentzat abstentzio-arrazoi dira ondoren zehazten diren hauek:

a) Interes pertsonala izatea fiskalizatutako gaian, enpresan edo erakundean, edo interesdunetako batekin ebatzi gabeko auziren bat edo zerbitzu-harreman bat izatea.

b) Laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasuna izatea fiskalizazioaren xede den erakundearen kontu-emaile edo administratzaileetako batekin.

c) Adiskidetasun mina edo etsaitasun nabaria izatea a) eta b) apartatuetan aipatzen diren pertsonetako batekin.

d) Fiskalizazioaren xede izan diren egintza edo espedienteetan esku hartu izana Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izendatua izan aurretik.

2.– Nolanahi ere, abstentziorako interes pertsonal erabakigarria dagoela ulertu beharko da, fiskalizazio jakin bati dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide bat ondoren aipatzen diren egoeretako batean dagoenean:

a) Erakundearen diru-sarreren eta gastuen kudeaketa, ikuskapena eta kontu-hartzailetza bere ardurapean egon izatea fiskalizazioaren xede den aldian.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakundetako lehendakari edo zuzendari, edo administrazio-kontseiluko edo organo baliokide bateko kide izatea fiskalizazioaren xede den aldian.

c) Fiskalizatutako erakundearen edo harekin funtzionalki lotuta dauden erakunde edo organismoen dirulaguntzak jaso izana, funts publikoen kargura, fiskalizazioaren xede den aldian.

d) Epaitegiaren beraren aurrean kontu-emaile izatea fiskalizazioaren xedeari dagokionez.

e) Fiskalizazio baten xede diren abal edo zerga-salbuespenen onuradun izatea.

3.– 1. apartatuan zehaztutako abstentzio-arrazoi baten eraginpean dagoen Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak Epaitegiko lehendakariari jakinarazi beharko dio hark hurrengo

osoko bilkurako gai-zerrendan sar dezan. Osoko Bilkurak erabaki beharko du alegatutako abstentzio-arrazoia betetzen den ala ez eta, hala badagokio, beste kide bat izendatu beharko du fiskalizazioaren ardura har dezan.

4.– Osoko Bilkurak erabakitzen badu Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideren batek abstentzio-arrazoi bat betetzen duela beste kide baten zuzendaritzapean egindako txosten bati dagokionez, abstentzio-arrazoiak eragindako kideak ezingo du parte hartu txosten horren eztabaida eta bozketan osoko bilkuran».

Zortzigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legean 16 ter artikulu berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«16 ter artikulua.– Errekusatzea.

1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideren bat abstenitzen ez bada hala egin behar duenean, bere errekusatzea sustatu ahal izango da, dagokion prozeduraren bidez, Epaitegiko lehendakariak eskatuta edo ustezko abstentzio-arrazoia tartean den prozeduran interesa duen edozein pertsonak hala eskatuta.

2.– Errekusatzea sustatuta, Epaitegiko lehendakariak horren berri eman beharko dio lehenbailehen Osoko Bilkurari. Errekusatutako Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak errekusatze-arrazoia onartzen badu, abstentzio-kasuetarako ezarritako prozedura jarraitu beharko da.

3.– Errekusatutako Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak errekusatze-arrazoia ukatzen badu, Osoko Bilkurak bi kideko ponentzia bat izendatu beharko du, egokitzat jotzen dituen ikerketa-jarduketak modu sumarioan burutzeko. Jarduketa sumario horietan jaso beharko dira errekusatzea sustatu duen pertsonaren eta errekusatutako kidearen alegazioak.

4.– Ponentziak, izendatua izan denetik hamar eguneko epean, egindako jarduketen alderdi guztiak jasoko dituen txosten bat aurkeztu beharko dio Osoko Bilkurari. Osoko Bilkurak, errekusatutako kidea bertaratuko ez den ezohiko bilkura batean, errekusatzea ebatzi beharko du.

5.– Egindako jarduketetan errekusatutako Epaitegiko kidearen dolozko edo erruzko jarduketaren zantzurik badago abstenitu beharko zukeen gai batean esku hartu izanagatik, ardurak eskatzeko espediente bat ireki beharko da».

Bederatzigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/988 Legearen 17. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«17. artikulua.– Kide izaera galtzea.

1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izateari uzteko arrazoi bakarrak hauek dira:

a) Heriotza.

b) Agintaldia amaitzea epea amaitzen denean.

c) Uko egitea, Eusko Legebiltzarrari idatziz aurkeztuta eta erakunde horretako Mahaiak onartuta.

d) Epailearen erabaki irmo batek deklaratutako ezgaitasun edo desgaikuntza.

e) Delituaren ondoriozko epai irmo bidezko kondena.

f) Karguaren ondoriozko betebeharrak larriki ez betetzea.

2.– Aurreko epigrafeko a) eta b) apartatuetan aurreikusitako kasuetan, automatikoki izango da eraginkorra kide izaeraren galera, eta ez da horri buruzko berariazko adierazpenik egin beharko. Hala ere, aurreko epigrafeko b) apartatuan aipatutako agintaldi-amaiera gertatzen denean, kasuan kasuko Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak karguaren funtzioak betetzen jarraituko du kide berriak kargua hartzen ez duen bitartean. Gainerako kasuetan, kide izaera hori galduko da Eusko Legebiltzarraren kasuan kasuko erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

3.– Aurreko 1. epigrafeko d), e) eta f) apartatuetan aurreikusitako kasuetan, Legebiltzarrak Epaitegiko kidearen funtzio eta eskubideak eten ahal izango ditu, hala badagokio, egin litekeen ikerketa-prozedurak irauten duen bitartean eta, gehienez ere, sei hilabetez. Funtzio eta eskubideen etetea eraginkorra izango da erabakitzen den unetik aurrera, baina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, haren berri jakinarazteko, hurrengo bost egunetan. Halaber, eteteak eragingo du, automatikoki eta hedadura berarekin, Epaitegiko funtzioak eta eskubideak eten zaizkion kideak Epaitegiaren antolamenduan dituen karguen etetea.

4.– Aurreko 1. epigrafeko f) apartatuan aurreikusitako kasuan, Epaitegiko kide izaera galduko du Eusko Legebiltzarraren bi herenak hautematen badu betebeharrak modu larrian ez direla bete».

Hamargarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legean lehenengo xedapen gehigarri berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, lege hau onartu eta 12 hilabeteko epean, erakundearen barne-araubideko erregelamendua onartuko du, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dena, hala nola Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren webgunean».

Hamaikagarren artikulua. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legean bigarren xedapen gehigarri berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren barne-araubideko erregelamenduak jaso beharko ditu, gutxienez, lege honen III. tituluko bigarren eta hirugarren kapituluetan ezarritakoaren erregulazioa eta garapena».

AZKEN XEDAPENA

Lege hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 3a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.